

### **BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA  
MARIA CRISTINA VAL SARDON  
NEREA YEREGUI BALDA  
IGOR OTERMIN EGUIA  
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA  
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

ANDER PRADOS OTAMENDI

### **IDAZKARIA**

Joanes Aleman Olló

Betelun, Udaletxeko udal  
bilkuren gelan, 2023ko  
abenduaren 27an  
arratsaldeko zazpi eta erdiak  
direnean, ondoan aipatzen  
diren zinegotziak elkartu dira,  
Lorenzo Zubillaga  
Goicoechea alkatea buru dela  
eta egintzaren fede ematen  
duen Joanes Aleman Olló  
idazkariak lagundurik.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

## **1. 2023-11-29KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA**

Deialdiarekin batera banatu den 2023-11-29ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

## **2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:**

### **1. Manantiales Betelu SA**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abenduaren 5ean, 78/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Goikola zubi inguruan urak errekarren ondoko bidearen ezponda kaltetu du eta zenbait zati mugitu ditu. Hori dela eta, Manantiales Betelu SA lursailaren jabeari memoria bat aurkezteko errekeritu zaio, hirigintza baimena izapidetu ahal izateko.

### **2. Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abenduaren 6an, 79/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2/2023 espedienteari dagokion Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioa.

### **3. Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abenduaren 11n, 80/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 3/2023, 4/2023, 6/2023 espedienteei dagozkien Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioa.

### **4. A TU LADO/Zurekin interés sozialeko kooperatiba**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abenduaren 15ean, 81/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024. Urtean, pertsonengan oinarritutako arreta izeneko formakuntza jarduerak egiteko Udaletxeko erabilera anitzetako gela erabiltzeko baimena ematea.

### **5. Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abenduaren 15ean, 82/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 7/2023 espedienteari dagokion Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioa.

### **6. Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abenduaren 19an, 83/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 8/2023 espedienteari dagokion Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioa.

## **3. 2024. URTEKO AURREKONTUAREN ETA EXEKUZIO OINARRIEN HASIERAKO ONESPENA**

Alkateak 2024. urterako Beteluko Udalaren aurrekontuen eta hauen exekuzio oinarrien irakurketa egin du.

Udalbatzari ondoko akordioa onartzea proposatu zaio:

1. Hasiera batez onestea 2024. ekitaldiko aurrekontu orokor eta bakarra.
2. Hasiera batez onestea Beteluko 2024. urteko aurrekontua betearazteko oinarriak
3. Bai aurrekontu orokorra bai hura betearazteko oinarriak jendaurrean jarriko dira hamabost egun baliodunean, iragarkia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, herritarrek eta interesatuek espedientea aztertu eta egoki juzkatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik egin ezean, aurrekontu orokor hori behin betikoz onetsizat joko da, jendaurreko epea bukatutakoan.

-----  
Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

#### **4. 2024. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 202. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235.ean ezarritakoari jarraituz, Beteluko Udaleko plantilla organikoa hasiera batez onartzeko proposatu zaio

Hasiera batean onetsitako plantilla organikoa jendaurrean egonen da udal idazkaritzan, hamabortz egun balioduneko epean, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko iragarki oholean iragarkia paratu ondotik, herritarrek edo interesatuek espedientea aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, plantilla organikoa behin betiko onetsizat joko da, aipatutako jendaurreko epea iragandakoan.

#### **LANPOSTUEN ZERRENDA**

##### Funtzionarioa

Lanpostua: 1 zenbakia. Araizko eta Beteluko Udalen Batasuneko idazkaria. Buru den udalerrria: Araitz. A maila. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Lanpostuko osagarria: %35 + 3,72. Berariazko baldintza: euskaraz jakitea nahitaezkoa. Egoera administratiboa: hutsik.

Lan-kontratudunak

Lanpostua: 2 zenbakia. Administrari Laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Lanaldi partziala (10 ordu astean). Mailako osagarria: %12. Berariazko betebeharra: euskaraz jakitea nahitaezkoa. Egungo egoera: hutsik.

##### Langileen izenen zerrenda

Aldi baterako administrazio-kontratudunak. Joanes Aleman Olló. Araizko eta Beteluko Udalen Batasuneko idazkaria. Lanaldiaren erdia Araizko Udalean eta beste erdia Betelukoan. A maila. Lanpostuko osagarria: %35 + 3,72. Antzintasuna 2013ko irailaren 2tik.

Aldi baterako lan-kontratudunak. Mirentxu Eskamendi Iriarte. Administrari Laguntzailea. Maila: D. Hornikuntza modua: oposizio-lehiaketa Lanaldi partziala (10 ordu astean). Mailako osagarria: %12. Berariazko betebeharra: euskaraz jakitea nahitaezkoa. Antzintasuna: 2009ko irailaren 3tik.

Euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 15eko 18/86 Foru Legearen 15.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta kontuan hartuz Beteluko egoera linguistikoa, euskaraz jakitea nahitaezko baldintza izanen da 1. eta 2. lanpostuetarako (idazkariaren eta administrari laguntzailea), eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara maila altuena eskatuko da, EGA, C-1, edo ofizialki haren baliokide den titulazioa.

-----  
Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

## **5. GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA**

Beteluko Udalaren udalbatzak 2023ko azaroaren 29an egindako bilkuran onartu egin zituen Beteluko eskolako eraikinen eta udal instalakuntzen garbiketa lanak egiteko zerbitzu kontratatzekeko administrazio klausula zehatzen agiria eta baldintza teknikoen agiria.

Nafarroako kontratazio atarian eta udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik, eskaintzak aurkezteko epean ez du inork eskaintzarik aurkeztu.

Hau ikusirik, honako hau erabaki du udalbatzak aho batez:

- 1.- Abiatutako esleipen kontratazioa hutsik deklaratzeko ez baitu inork eskaintzarik aurkeztu horretarako emandako epean.
2. Esleipen prozedura berri bat hastea eta Administrazio-klausula zehatzen agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.
3. Kontratazio-mahai hau izendatzea, zerbitzua kudeatzeko kontratua esleitzeko proposamena egiteko:

Presidentea: Lorenzo Zubillaga Goicoechea jauna

Mahaikideak:

- Iñaki Elizalde Zubillaga, Beteluko Udaleko zinegotzia.
- Nerea Yeregui Balda, Beteluko Udaleko zinegotzia.

Mahaikide-idazkaria: Joanes Aleman Olló

## **6. JASOTAKO IDATZIAK**

### **1. – Mailope kultur elkarteak**

Mailope kultur elkarteak ekitaldi kultural bat antolatzeko proposamena egin die Araizko eta Beteluko Udalei. Ikuskizunak 3.000 euro inguruko kostea edukiko duela aurreikusi dute eta hortaz, Beteluko Udalari 1.500 euro legezkiokete. Ikuskizunean sarreren bidez lortuko litzatekeen dirua Mailope kultur elkartearendako izanen litzateke.

Hau ikusirik udalbatzak ondokoa onartu du:

1.- Proposamenari adostasuna adieraztea. Beteluko Udalaren ekarpena ikuskizunaren koste errealaren araberakoa izanen da, Araizko Udalarekin erdibana beti ere.

2.- Mailope kultur elkarteari akordio hau jakinaraztea.

## **7. FAKTUREN ONESPENA**

|                                             |                                                         |          |
|---------------------------------------------|---------------------------------------------------------|----------|
| NAFARKOOP                                   | DIRULAGUNTZAREN KUDEAKETA                               | 363,00   |
| URZUBI S.A.                                 | F. A 1.368                                              | 98,82    |
| GOIENER                                     | Azaroko eskolako energia elektrikoa                     | 1.175,84 |
| OFICO                                       | Abenduko lan aholkularitza                              | 122,34   |
| CODISNA                                     | F. 23.708 Hipoclorito                                   | 232,32   |
| IBERDROLA                                   | Azaroko argiteria publikoa                              | 623,02   |
| ANIMSA                                      | F. A 351 Sistema de detección de intrusos               | 165,96   |
| COMERCIAL FERVIS                            | F. 3891                                                 | 157,18   |
| IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA     | Kale Nagusia 7-2. Ezkerrezko azaroko energia elektrikoa | 11,90    |
| ANIMSA                                      | Azken hiruhileko zerbitzuak                             | 1.131,96 |
| HORTALIZAS ETXEBERRIA                       | Loreak                                                  | 23,50    |
| SERLIMPIA                                   | F. 230543                                               | 67,76    |
| MIGUEL RAMON OLANO ZABALETA                 | F. 78-2023                                              | 520,18   |
| MIGUEL RAMON OLANO ZABALETA                 | F. 80-2023                                              | 211,75   |
| TAXILON                                     | F. 913                                                  | 126,01   |
| IGNACIO ERASO OCHOTORENA                    | F. 101                                                  | 233,77   |
| IGNACIO ERASO OCHOTORENA                    | F. 102                                                  | 175,45   |
| LYRECO                                      | F. 7050368192                                           | 84,98    |
| IBERDROLA                                   | Azaroko energia elektrikoa                              | 350,50   |
| IBERDROLA                                   | Urberoako azaroko energia elektrikoa                    | 8,67     |
| CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA               | Azaroko zakarrontzien garbiketa                         | 123,42   |
| CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA               | Azaroko garbiketa Zerbitzua                             | 2.734,59 |
| WIKAI                                       | Azaroko banda zabala                                    | 112,10   |
| ANGELINES CARRILLO RUIZ                     | Azaroko uraren kontrola                                 | 90,00    |
| LOTERIA                                     | Udalarendako eta udal langileendako dezimoak            | 40,00    |
| <b>SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA</b> |                                                         |          |
| KIDE AHOLKULARITZA                          | AZAROKO LAN AHOLKULARITZA                               | 357,56   |
| ESTANGA ARRIZUBIETA, MARIA ROSARIO          | SORGINTXOKO AZAROKO GARBIKETA PRODUKTUAK                | 9,65     |
| ESTANGA ARRIZUBIETA, MARIA ROSARIO          | SORGINTXOKO AZAROKO JATEKO PRODUKTUAK                   | 64,58    |

|                       |                |        |
|-----------------------|----------------|--------|
| M. GARCIA SATRUSTEGUI | Azaroko menuak | 787,80 |
|-----------------------|----------------|--------|

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

### **8. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortzi eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.